

Gazte mailako Hernaniko aurreku txapelketa antolatu dute igande goizerako, Biterin

Goizeko 11:00etan hasiko da Gazte mailako Hernaniko aurreku txapelketa, Biteriko areto nagusian, eta sarrera doan izango da.

HERNANI KULTURA

Gipuzkoako euskal dantzarien biltzarrak, Gazte mailako Hernaniko aurreku txapelketa antolatu du iganderako, Hernaniko Udalaren, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Etorkizuna Orain Gipuzkoaren laguntzarekin.

Goizeko 11:00etan hasiko da txapelketa, Biteriko areto nagusian, eta sarrera doakoa izan dela ziurtatu dute antolatzaileek, beraz, edonork du bertaratzeko aukera. Guztira 31 dantzarik hartuko dute parte, ondorengo herrietatik

etorrita: Aduna, Amasa-Villabona, Areso, Donostia, Elgoibar, Errenteria, Legazpi, Leizaola, Lezo, eta Zizurkil.

Adinaren arabera, 2 sail ezberdinetan banatuko dira; A sailean, 2014, 2015 eta 2016 urteetan jaiotakoek hartuko dute parte; eta B sailean, berriz, 2011, 2012 eta 2013 urteetan jaiotakoek.

Dantzariak ondorengo dantzak eskainiko dituzte: Ormatxulo, Agurra, Hondarribi Handia eta Legazpiko zortzikoa. Epaimahaia, berriz, osatuko dute Katerin Artolak, Nahikari Vizuetek eta Idoia Besadak. **k**



Aurreku ligan jokatuak azken txapelketaren argazkia (Elgoibar).



Hauteskunde mahaia osatzeko zozketa, egina

URUMEA UDALA

Apirilaren 21eko Eusko Legebiltzarreko hauteskundeetarako mahaia osatzeko zozketa dagoeneko egin dute Hernaniko udaletxean eta baita Astigarragakoan ere. Hernaniarren kasuan, 'Hernani.eus' webgunean begiratu ahal izango dute mahaian egotea egokitu zaien edo ez. Astigarragan, berriz, atzo egin zuten Osoko Bilkura eta bertan, egin zuten hauteskunde mahaia osatzeko dituzten pertsonak aukeratzeko zozketa. Guztira 7 herritar egongo dira Erribera kulturagunean, herritarrek botoa emateko. Eta herritarrek hauteskunde mahaian egotea egokitu zaien edo ez jakiteko 'astigarraga.udala.eus' atarian sartu beharko dute, eta norberaren NAN zenbakia sartu.

Dobera Euskara Elkartek antolatutako Udaleku ibiltarien izenematea irekita, dagoeneko

Maiatzaren 12ra arte dago izena emateko aukera, 'dobera.eus' atarian eta Doberak gaineratu du «kopuruak mugatuak» direla.

HERNANI DOBERA

Bueltan dira Dobera Euskara Elkartek antolatutako udaleku ibiltariak. 12garren edizioa da aurtengoa, eta urteroko helburuari finko eutsi dio Doberak: «udan, opor garaian, gaztetxoak euskerazko aisialdiaz gozatzeko eta erabilera indartzeko. Era berean, umeez eta gazteek natura errespetatu, hezkidetzat, elkarlana eta talde sentimendua bultzatu, euskal kultura ezagutu, inguru eta lagun berriak ezagutzeko, eta batez ere, ondo pasatzea nahi dugu».

Udaleku ibiltari hauetan, herri herri mugituko dira, normalean txango bidez eta material gutzia, furgonetarekin mugit-

zen dute Doberako begiraleek, aldezturik. Lotarako lekuei dagokienez, Doberak dio herri bakoitzaren arabera izaten dela: «ikastetxeak, udal-eraikinak, frontoi estaliak, eta gurekin doan sukaldariarekin egin ditugu otorduak egunero».

Udaleku ibiltarietan, zenbait ekintza burutzen dituzte, besteak beste, ur ekintzak, abentura kirolak, txangoak eta mendi ibilbideak. Aurten ere, aurreko urteetan bezala, bi txanda antolatu ditu Doberak; bat haundien txanda; eta bestea, berriz, txikien txanda. Haundien kasuan, Debarrenan ibiltzeko parada izango dute; eta txikiak, Iparraldera bidea hartuko dute.

Berrikuntza gisa, aurten bi



2023ko Udaleku ibiltarietako argazkia.

asteko txandak egin beharrean, aste betekoak izango dira: Haundien kasuan, uztailearen 8tik 14ra izango da, 2009, 2010 eta 2011 urteetan jaiotakoak, eta 220 euroko prezioarekin (bazkideek 195 euro). Txikien txanda, aldiz, uztailearen 22tik 27ra izango da, 2012, 2013 eta 2014 urteetan jaiotakoek osatuko dute txanda hori.

200 euroko prezioa du txikien txandak (bazkideek: 175 euro).

Izena emateko aukera, maiatzaren 12ra arte

Udaleku ibiltarietan izena emateko aukera dagoeneko zabalik dago, eta maiatzaren 12ra arte egongo da horretarako aukera, 'dobera.eus' atarian sartuta. **k**

Goiz eguzkik batzarra, gaur

HERNANI GOIZ EGUZKI

Gaur goizeko 11:30etarako, Goiz Eguzkik urteko asanblada antolatu du. Biterin izango da eta eta Goiz Eguzkik eskatu du 2023ko asanbladaren akta irakurtzeko: «akta hori gure webgunean eta Goiz Eguzkik aurkitu dezakezue».

Hitzordua gaur, Zinkoenean

HERNANI PRESOKA

Ostiraleroko zitari eutsiz, gaur arratsaldeko 19:00etan, kontzentrazioa egingo dute Zinkoenean, «presoen eskubideak aldarrikatzeko».

Astelehen eta asteartetan gauz irekita eta igandetan eguerdian bakarrik, gainontzeko egunetan eguerdi eta gauz

Astelehen, astearte eta ostegun gauetan eta asteazken, ostegun eta ostiral eguerditan menu "lasaia" 32 € (bakailo prejiturik gabe); egunero menu osoa aukeran.

GURUTZETA
SAGARDO NATURALA
SIDRA NATURAL

Oialume bidea, 63 - Astigarraga - 943 55 22 42

23.korrika
HARRO BERRI

Elizatxo Ikastola korrikarekin bat

ELIZATXO
Ikastola

MARTXOAK 23

2497 KM
17:44
Karabeleko
Gasolindegia ondoan

23.korrika
HARRO BERRI

Egin korrika LABekin

LAB
1974 - 2024 • ZIBALTZEN

TELEFONO ZENBAKIAK

Taxiak 943 55 00 93 (Her.), 622 222 343 (Asti.), 948 51 40 37-948 51 40 19 (Goi.) **Udaltzaingoa** 943 24 89 00 (Her.) 943 33 52 30-699 487 587 (Asti.) **Hernaniko HHZ** 943 33 70 00 **Autobusak**

Lurraldebus: 900 300 340, Korreoa Goizueta-Hernani: 948 51 40 37 **Jokalarialkoholiko anonimoak** 943 33 11 03 **Anbulatorioak** 943 00 66 66-900 20 30 50 (Her.), 943 33 56 44 (Asti.), 948 51 08 00 (Goi.)

FARMAZIAK

Egunez A. ETXEBARRIA Andre kale, 48 (Hernani) 943 551793 **Gauetz** FLORIDA Mañe i Flaquer plaza, 6 (Hernani) 943 576477 **Goizueta** Nagusia, 64 948 51 43 53



DOBERA BAZKIDEAK / KRONIKAKIDEAK

Korrikako omenduei elkarrizketa, biharko Kronikan

Biharko alean argitaratuko dugu Andrea Isasa kolaboratzaileak omenduei egindako elkarrizketa. Aurrerapen modura, Isasak Hernaniko AEKko kideei egindako elkarrizketatxo da honakoa.

HERNANI

KORRIKAKO OMENDUAK

Bihar arratsaldeko 16:30etan omenduko dituzte Juanjo Uria, Malores Etxeberria eta Rikardo Mendiola, Gudarien plazan. «Herriaren alde Euskeraren alde egin duten lanagatik» jasoko dute Hernaniko AEKren aitortza, eta herritar guztiei egin diete parte hartzeko deia.

Zein irizpideren baitan aukeratu dira KORRIKAKO omenduek?

Herriko eragileak izaten dira normalean, baita herritarrek ere. Herrian eragina dutenak izan ohi dira eta, noski, euske-

rarekin lotura dutenak. Euskaltzaleak dira eta urte osoan zehar euskerari lotuta ibiltzen dira, eta KORRIKari ere bai. Eredugarriak dira.

Zergatik Malores, Juanjo eta Rikardo?

Euskera aintzat hartzen duten hiru herritar dira, eta era berean, herriak ere aintzat ditu.

Aurtengo omenduek, hiru hitzetan?

Lana, konpromisoa, euskaltzaletasuna.

Garrantzitsua da haiek egindako ekintzak plazaratzea?

Noski. Nork bere arloan egindako ekarpenak ikusarazi egin behar dira, eta aurtengo omenduek euskerarekin estuki lotuta egin duten eta egiten duten lana nabarmentzea garrantzitsua da.

KORRIKA iristear dagoela eta guztiok urduri, ilusioz... gauden horretan, nolakoa izaten da omenaldiko momentua?

Oso hunkigarria, zalantzarik gabe. Herriak egiten dien aitortza da, herriaren aurrean jartzen dira eta berezia izaten da guztiontzat. Egindako lanagatik eskerrak emateko unea izaten da. **k**

Ormazabalek eta Arsuagak finala, gaur

Gipuzkoako lehenengo mailako finala jokatuko dute gaur 19:30etan, Amezketan.

URUMEA ESKU PELOTA

Asteburu honetan C.D. Hernaniko pelotariak, guztira 11 norgehiagoka jokatuko dituzte txapelketa ofizial eta pribatuetan. Gaur arratsaldeko 19:30etan, Astigarragako Txomifenen jokatuko dute Udaberri Txapelketako 2garren mailako finala, Oier Az-

peitiak eta Zabalak (Mundarro); Barrena eta Madinagoitia bikotearen aurka.

Ordu erdi beranduago, hau da, arratsaldeko 20:00etan, Imanol Ormazabalek eta Oier Arsuagak, Amezketan dute hitzordu garrantzitsua. Izan ere, Gipuzkoako Txapelketako lehenengo mailako finala jokatuko dute, Behar Zanako bikotearen aurka.

Txapelketa pribatuei dagokienez, gaur arratsaldeko 19:30etan, Unax Mendialdek eta Hegoi Zabalak, Behar Zana izango dute aurrez aurre, Hernaniko kiroldegian. **k**

Hiru partidu gaur, Galarretan

HERNANI ERREMONTEA

Asteburuari ongi etorria emateko, gaur arratsaldeko 17:30etatik aurrera, ondorengo partiduak jokatuko dira; lehenengoa jokatuko dute Jabalerak eta Goikoetxea VIak, Susperregiren eta Apezetxearen aurka; bigarrrena, Ansa IIak eta Azpirozek, aurrez aurre izango dituzte Ezkurra II eta Barrenetxea IV; eta hirugarren partidua osatuko dute: Seguroiak eta Martirenak; Aldabek eta Juaneneak.

Arantzazura irteera, bihar

HERNANI ELIZA

Larunbaterako, Arantzazura irteera antolatuko du Urumea Harana Pastoral Barrutiak. Biteriko autobus geltokian jarri dute hitzordua larunbatean bertan, goizeko 07:20etan. Era berean, azaldu dute «ibili ezinik daudenek ere aukera dute Arantzazura bertaraino busez joateko». Itzulera eguerdiko 13:00etan izango da. Aste Santuko eta Pazkoko elizkizunak datozen egunetan argitaratuko dugu Kronikan.

ESKELAK


Eskelak ilunabarreko 19:00ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskela jartzen duenak eskatu bezala errespetatuko dira eta funeraria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.

IV. URTEURRENA

Amaya Irazusta Ocariz

Gure oroimenean zaude beti.

ETXEKOAK



Hernanin, 2024ko martxoaren 22an

Astigarragako baserri bateko familia baten etxegatzebetzea salatu zuten, ostiralean

Agerraldian, familiako kideek, Astigarragako alkatearen eta udalbatzako hainbat kideren babesa jaso zuten.

ASTIGARRAGA

KALERATZEAK STOP


Joan den ostiralean, Kalera-tzeak Stop plataformako kideek, Donostiako Boulevardean prentsaurreko batean, Astigarragako baserri bateko familia baten etxegatze arriskua salatu zuten, «bizi diren baserriaren jaurtiketa jasango duen, mailegu-emaile batekin izandako zor bat dela eta». Familiako kideek, alkatearen eta Astigarragako udalbatzako hainbat kideren babesa izan zuten, baita EH Bil-

duko, Elkarrekin Podemoseko eta hainbat sindikatutako ordezkariena ere.

Agerraldian, parte hartzaileek ohar bat irakurri zuten, azalduz Astigarragako familia horrek pairatzen duen egoera, «larrialdi ekonomiko» baten ondorio dela. Horren ondorioz, «hipoteka-bermea duen mailegu pribatu bat» sinatu zuten, 147.000 eurokoa, eta lau txekeren bidez jaso behar zuten, baina «60.000 euroko balioa duten bi bakarrik kobratu zituzten». Kaleratzeak Stop elkarteak, be-

raz, salatu zuenez, mailegu horren «gehiegizko klasusulen ondorioz» urtebetean 174.000 euroak itzuli behar zituzten, «% 15eko interesarekin (22.050 euro) eta % 29ko berandutze-interesarekin (29.400 euro). Horrek 197.715 euro egiten du guztira, eta hori da 2015ean eskatu zen hipoteka-betearazpenaren demandan erreklamatu zitzaizen zorra».

Hala ere, Kaleratzeak Stop elkarteak azaldu zuenez, joan den urtarrilaren 16an bere abokatuak izapide horren aurka errekurtsioa aurkeztu zuen. Errekurtsioa onartuta, «kalte-tutako familiak su-etena du orain, gutxienez abenduaren 31ra arte». **k**



berria

ERREMONTE TXAPELKETA 2024

Busi jaialdi hau zuzenean YouTube bidez @orismenderemontea

MARTXOAK 22 OSTIRALA 17:30EAN

GALARRETA JAI ALAI HERNANI

1. PARTIDA (3 SETENA)

JABALERA - GOIKOETXEA VI vs SUSPERREGI - APEZETXEA

2. PARTIDA (3 SETENA)

ANSA II - AZPIROZ vs EZKURRA II - BARRENETXEA IV

3. PARTIDA (3 SETENA)

SEGUROLA - MARTIRENA vs ALDABE - JUANENEA

